

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Zein dira SARARGI-k behar dituen elementu garrantzitsuenak bere proiektuak funtziona dezan?

SARARGI-k bere balio-proposamena garatzeko eta bezeroengana modu eraginkorrean iristeko funtsezko baliabide hauek behar ditu:

1. Baliabide fisikoak

- **Ordenagailuak:** Zerbitzuak kudeatzeko eta dokumentuak sortu eta egokitzeko ezinbesteko tresna.
- **Internet/WiFi:** Komunikazio digitalerako eta bezeroekin harremanak mantentzeko oinarrizkoa.
- **Inprimagailua:** Beharrezkoa behar izanez gero material fisikoak sortzeko, hala nola kontratuak, aurkezpenak edo irakurketa erraza materialak inprimatzeko.

2. Baliabide intelektualak

- **Ezagutza espezializatua:**
 - **Komunikazio Bitartekotzako ikasketetatik** lortutako prestakuntza tekniko eta profesionala.
 - **Esperientzia pertsonala eta praktikoa:** Arlo ezberdinetan egindako lanak gure gaitasunak hobetzeko eta aplikatzeko balio izan digu.
- **Sormena eta berrikuntza:** Zerbitzuak egokitzeko eta bezero bakoitzaren behar espezifikoak erantzuteko ideia berriak garatzeko gaitasuna.
- **Metodo eta teknologien ezagutza:** Adibidez, FM sistemak edo begizta magnetikoak instalatzeko beharrezkoak diren irizpide teknikoak.
- **Formakuntza eguneratua:** aldakorra eta etengabeko garapenean (teknikoa zein teorikoa) dagoen sektorean, SARARGI-k eta berau osatzen ditugun kideok formakuntza eguneratua izan behar dugu. Hauetako batzuk SARARGI-k finantziatu behar izango ditu.

3. Giza baliabideak

- **Proiektuak hasieran kudeatzeko gaitasuna:**
 - Bi sortzaileak (SARARGIko fundatzaileak) izango dira proiektuen kudeaketa eta ezarpenaren arduradun nagusiak.
- **Kanpoko profesionalen laguntza:**
 - **Informatikoa:** Webgunea diseinatu, garatu eta mantentzeko.
 - **Elektrizista:** Proposatutako baliabideak, hala nola; begizta magnetikoak instalatzeko.
 - **Arkitektoa:** Espazio fisikoen irisgarritasuna planifikatzeko eta garatzeko.
 - **Lan aholkularitza baten zerbitzuen kontratazioa:** enpresaren kontabilitatea eta zenbait zerbitzu legalak kudeatzeko. SARARGI-ren hastapenetan gutxieneko zerbitzuak kontratatuko ditugu eta enpresa garatu ahala honen beharretara egokituko ditugu kontratatutako zerbitzuak.
- **Etorkizunean langile gehiago:** Zerbitzuen eskariak handituz gero, taldea handitzeko prest dago SARARGI.

4. Finantza-baliabideak

- **Hasierako aurrezkiak:** Enpresa abian jartzeko erabiliko diren oinarrizko finantza-iturria.
- **Diru-laguntzak eta laguntza publikoak:**
 - Institutuzio publikoen babesa bilatzea, proiektu berritzaile eta inklusiboentzako laguntzak eskatuz.
- **Proiektu puntualetatik sortutako diru-sarrerak:**
 - Egindako lanak fakturatzeak enpresaren finantza egonkortasuna bermatuko du.
- **Lizitazio publikoak irabazteko gaitasuna:** Zerbitzu espezializatuen bidez kontratu publikoak lortzea.

SARARGIk baliabide gutxirekin abiatzeko gaitasuna du, baina horiek modu eraginkorrean erabiltzea garrantzitsua izango da. Giza baliabideen lankidetzak, baliabide intelektualen erabilera egokia eta finantza-baliabideen kudeaketa arduratsua izango dira proiektua arrakastaz gauzatzeko funtsezko elementuak. Erakunde publiko eta pribatuentzako konponbideak eskaintzen jarraitzeak diru-sarrera iraunkorrak sortzea ahalbidetuko du, etorkizunean inbertsio handiagoak egiteko aukera emanez.